


Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



Uztailan, hirugarren hilabetez jarraian, igoera txiki bat erregistratu da Lanbiden izena emandako pertsona langabeen kopuruan, eta **6.684 langabe zenbatu dira (2.929 gizon eta 3.755 emakume)**:

- Langabezia **% 1,5 igo da ekainaren aldean.**
- Langabezia **% 2,7 igo da aurreko urteko uztailaren aldean.**

Uztailan, gizon langabeen kopurua % 0,2 jaitsi da, eta emakume langabeena, berriz, % 2,4 igo.

Martxotik aurrera hilabetero gertatu den bezala (maiatzean izan ezik), uztailan ere, aurreko urteko hilabete beraren baino langabe gehiago zenbatu dira Donostian.

2023ko uztailarekin alderatuta, langabeen kopurua % 2,7 igo da. Gizon zein emakume langabeek gora egin duten arren, langabeziaren hazkunde hori batez ere gizonen taldean kontzentratzen da (+%4,7 gizonen artean eta +%1,2 emakumeen artean).

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
Langabezia indizea	7,5	8,0	9,8
Gizonen langabezia indizea	6,8	6,6	8,2
Emakumeen langabezia indizea	8,1	9,3	11,4
Genero arrakala	1,3	2,7	3,2

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea 7,5koa da: 6,8 gizonetan, 8,1 emakumeetan. Bestalde, genero-arrakala 1,3 puntu portzentualekoa da.

	Langabezia indizea	EAErekiko aldea
Gipuzkoa	8,0	-1,9
Donostia	7,5	-2,4
Bizkaia	10,7	0,9
Bilbo	12,5	2,7
Araba	10,7	0,8
Gasteiz	11,0	1,2

Lurraldeen arteko konparaketan, Lanbideko datuen arabera, **Gipuzkoa eta Donostia dira EAEen langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburuak.**

		Hiletik hilerako aldaketa	Urtetik urterako aldaketa
Langabezia totala	6.684	%100	%1,2
Gizonezkoak	2.929	%44	-%0,2
Emakumezkoak	3.755	%56	%2,4
Gipuzkoa	28552		%1,2
EAE	108.065		-%0,5

Langabezia tasa EUSTATen arabera (2024 2. hiruhilekoa)

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea kontuan hartu beharrean (7,4 ekainean), EUSTATEk hiru hilean behin argitaratutako langabezia-tasa hartzen badugu erreferentziazat (Biztanleria aktiboaren jardueraren arabera estatistika), berriz ere ikusten dugu Gipuzkoa eta Donostia direla, 2023ko azken hiruhilekoan, langabezia-tasarik txikiena izan duten lurralde historikoak eta hiriburuak.

LANGABEZIA TASA (EUSTAT): 2024ko bigarren hiruhileko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	5,9	5,2	5,6
Donostia	7,1	5,6	6,4
Bizkaia	7,8	9,5	8,6
Bilbo	7,9	11,0	9,4
Araba	8,5	6,7	7,7
Gasteiz	9,9	5,7	8,0
EAE	7,3	7,6	7,5

Eustatek, Lanbidek ez bezala (Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan), langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola). Galdeketa baten bitartez egiten da neurketa.


JARDUERA-TASA (EUSTAT, 2024ko bigarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	60,9	53,9	57,3
Donostia	62,2	54,6	58,2
Bizkaia	60,7	51,3	55,8
Bilbo	62,8	50,4	56,2
Araba	63,6	52,6	57,9
Gasteiz	64,1	51,5	57,5
EAE	61,2	52,3	56,6

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT, 2024ko bigarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	57,3	51,1	54,1
Donostia	57,8	51,5	54,5
Bizkaia	56,0	56,4	51,0
Bilbo	57,8	44,9	50,9
Araba	58,2	49,1	53,5
Gasteiz	57,7	48,6	53,0
EAE	56,8	48,3	52,4

Langabeziaren banaketa, adinaren eta generoaren arabera



Donostian, uztailean:

- 55 urtetik gorako 2.332 langabe erregistratu dira Lanbiden (-4, ekainaren alderan).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.584 langabe erregistratu dira Lanbiden (+16, ekainaren alderan).
- 35-44 urte bitarteko 1.219 langabe erregistratu dira Lanbiden (+10, ekainaren alderan).
- 25 eta 34 urte bitarteko 1.111 langabetu erregistratu dira Lanbiden (+42, ekainaren alderan).
- 25 urtetik beherako 438 langabe erregistratu dira Lanbiden (+9 ekainaren alderan).

Langabeen kopuruak pixka bat gora egin du adin-tarte guztietan, 55 urtetik gorakoenean izan ezik.

Egia bada ere 55 urtetik gorakoak direla langabezian pisu handiena duten kolektiboak, horiek ere garrantzi handiagoa dute biztanleria-mailan.

Ekainarekin alderatuta, emakume langabeen kopurua hazi egin da (% 2,4), eta gizon langabeena, berriz, jaitsi (%-0,2).

Gipuzkoan, Donostian bezala, langabeen kopurua +%1,2 igo da. Bestalde, EAEko langabeen kopurua +%1,6 igo da.

2023ko uztailarekin alderatuta, gizon eta emakume langabeen kopuruak gora egin duen arren, hazkunde hori batez ere gizonen kolektiboan kontzentratzen da (emakume langabeen kopurua % 1,2 egin du gora eta gizonena % 4,7).

Era berean, nabarmentzekoa da, 2023ko uztailarekin alderatuta, Donostian langabeen kopuruak gora egin duen bitartean, Gipuzkoan eta EAEn behera egin duela (-%0,5 eta -% 0,6, hurrenez hurren).

	Gizonak	Emakumeak	Arrakala
25 urtetik beherakoak	%55,0	%45,0	-10,0
25 eta 34 urte bitartekoak	%46,0	%54,0	8,0
35 eta 44 urte bitartekoak	%39,0	%61,0	22,1
45 eta 54 urte bitartekoak	%44,3	%55,7	11,4
55 urtetik gorakoak	%42,9	%57,1	14,2

Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoetan izan ezik.

Genero-berdintasunean aurrerapenak izan diren arren, datuek pentsarazten digute oraindik ere oztopoak eta aurreiritziak daudela, emakumeek enplegua lortzea eta karrera profesionalean aurrera egitea oztopatzen dutenak.


Hori are nabarmenagoa da pertsonen beste familia-erantzukizun batzuei aurre egiten dieten adin-tarteetan, hala nola seme-alabak edo beste senitarteko batzuk zaintzean.

Testuinguru horretan, datuek pentsarazten digute 35 urtetik gorako emakumeen artean langabeziaren kronifikazioa dagoela.

Kronifikazio horrek 35 eta 45 urte bitarteko emakumei eta 55 urtetik gorako emakumei eragiten die batez ere, denbora luzean generoen arteko aldea 15 ehuneko-puntutik gorakoa baita.

35-45 urteko emakumeen kasuan, genero-arrakala ehuneko 22,1 puntukoa da uztailean.

Langabeen hezkuntza maila



Langabeen % 44,3ek derrigorrezko ikasketak ditu bakarrik. Hala eta guztiz ere, langabeen % 19,2k unibertsitate-ikasketak ditu (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 7 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du (gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten langabeak, eta gutxiago, soilik, derrigorrezko ikasketak dituztenak).

Bestalde, goi-mailako ikasketak (Lanbide Heziketa eta unibertsitatea) dituzten emakume langabeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da, eta esan dezakegu **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonen baino kualifikazio handiagoa dutela**. Aurrerago aztertuko dugun bezala, horrek pentsarazten digu genero-desberdintasunak daudela, emakumeen kolektiboarentzat kaltegarriak, lan-merkaturako sarbidean eta kalitatezko enpleguetan.


	Donostia	Gipuzkoa	EAE
45 urtetik gorakoak	%58,6	%54,6	%54,9
35 urtetik beherakoak	%23,2	%25,3	%24,6
Iraupen luzeko langabezia	%45,2	%45,4	%49,5
Atzeritarrak	%14,3	%19,2	%18,2
EB-ko atzeritarrak / Atzeritarrak	%17,5	%17,4	%16,1
Unibertsitateko ikasketak dituztenak	%19,2	%12,6	%12,2
DBHra arteko ikasketak dituztenak	%44,3	%52,5	%54,9

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:

- *Proportzioan, Donostian 45 urtetik gorako langabe gehiago daude.*
- *Proportzioan, Donostian gazteen langabezia txikiagoa da.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino iraupen luzeko langabe gutxiago ditu.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzeritar jatorriko langabe gutxiago ditu.*
- *Donostian, atzeritar jatorriko langabeen artean EBtik datozen langabeen proportzioa (% 17,5), EAEkoa (% 16,1) eta Gipuzkoakoa (% 17,4) baino handiagoa da.*




(20 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren garrantzi demografiko bera biztanleria osoarekiko 3 lurraldeetan: % 58.)

Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzaileek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmentzen dira.

Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Uztailean zehar **emakumezkoen kontratazioak gizonazkoena gainditu du. Hala eta guztiz ere, emakume langabeen hazkundera handiagoa izan da gizon langabeena baino.**

Datuek pentsarazten digute genero-oztopoak eta arrakalak daudela oraindik lan merkatuan, eta horrek eragina duela kontratazio-motan. **Uztailean, emakumeek sinatutako kontratuen ia erdia lanaldi partzialeko kontratuak dira (%53), eta gizonen sinatutako kontratuen % 30 baino ez dira mota horretako kontratuak.**

Azkenik, uztailean, **kontratatutako pertsona guztien % 11 emakume atzerritarrak ziren** (atzerritarrak Donostiako biztanleria osoaren % 10,2 dira).

Uztailean 8.639 kontratu sinatu dira, hau da, ekainean baino % 3,4 gehiago (ekainean baino 286 kontratu gutxiago, 2023ko uztailean baino 539 kontratu gutxiago).

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Hileko kontratuak guztira	3.757	%43,5	4.882	%56,5	8.639
Aldi baterakoak	2.737	%42,8	3.661	%57,2	6.398
Mugagabeak	1.020	%45,5	1.221	%54,5	2.241
Lanaldi partziala	1.132	%30,4	2.592	%69,6	3.724
Lanaldi osoa	2.625	%53,4	2.290	%46,6	4.915

Kontratu horiekin 6.646 pertsona kontratatu dira, hau da, ekainean baino % 4 gutxiago (253 pertsona gutxiago kontratatu dira).

Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,3 kontratu sinatu ditu.


Nabarmentzekoa da, proportzioan, kontratatutako pertsonen kopurua gehiago jaitsi dela sinatutako kontratuen kopurua baino.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Kontratatutako pertsonak guztira	2.881	%43,3	3.765	%56,7	6.646
Sinatutako kontratuen ratioa	1,3		1,3		1,3
24 urtetik beherakoak	1.154	%44,9	1.419	%55,1	2.573
25 eta 34 urte bitartekoak	687	%45,0	840	%55,0	1.527
35 eta 44 urte bitartekoak	411	%42,5	556	%57,5	967
45 eta 54 urte bitartekoak	418	%41,1	600	%58,9	1.018
54 urtetik gorakoak	211	%37,6	350	%62,4	561
Atzerritarrak	546	%41,4	772	%58,6	1.318

Nabarmendu dezakegu:

- Adin-tarte guztietan kontratatu dira emakume gehiago gizon baino. Batez ere 45 urtetik gorakoen adin-tartean.
- uztailean sinatutako **kontratuen % 26 mugagabeak ziren** (% 26 ekainean).
- Uztailean sinatutako kontratuen **% 43,1 lanaldi murriztukoak dira** (% 42,4 ekainean). Kontratu horiek gehienbat emakumeek sinatzen dituzte (kontratu horien % 70).
- Kontratuen **% 2 35 urtetik beherakoek sinatzen dituzte.**
- Kontratuen **% 23 45 urtetik gorakoek sinatzen dituzte. Horietatik % 61 emakumeak dira.**
- Uztailean **kontratatutako pertsonen % 19,9 atzerritarrak ziren. Gainera, kontratatutako atzerritar jatorriko pertsonen % 59 emakumeak ziren.**

Kontratuak sektore nagusien arabera¹



OSTALARITZA

- Sektoreak hiriko kontratazioan duen pisua txikitu egin da eta hirian sinatu diren **kontratu guztien % 22,9** sinatu ditu (% 20,3 ekainean).
- Hiriko **kontratu mugagabe guztien % 36,4** sinatzen ditu (ekainean % 36,1).
- Sektore horretan sinatu dira kontratu mugagabe gehien, **815 kontratu mugagabe** (794 kontratu ekainean).
- Kontratazio mugagabeak berriro ere behera egin du sektorean. **Ostalaritzan sinatutako kontratuak % 41 mugagabeak dira** (% 47 ekainean).
- Kontratazioaren **partzialtasunak behera egin du uztailarekin** alderatuta. **Ostalaritzan sinatutako kontratuak % 41 lanaldi partzialekoak dira** (% 52 ekainean).

MERKATARITZA

- Hiriko kontratuak % 12,9 sinatu ditu** (% 12,4 ekainean).
- Hiriko kontratu mugagabeak % 14,2** (ekainean % 12,2) eta **lanaldi partzialeko kontratuak % 20,1** (ekainean % 18,9) sinatu ditu.
- Uztailan zehar **merkataritzan sinatutako kontratuak % 29 mugagabeak dira** (% 26 ekainean).
- Lanaldi partzialeko kontratazioak % 2 egin du gorra aurreko hilaren aldean.**
- Merkataritzan erregistratutako kontratuak % 67 lanaldi partzialekoak dira** (% 65 ekainean).

¹ **SEIC:** SEIC terminoak "Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, **pertsonen zuzendutako SEICetan** (hezkuntza eta osasuna) eta **enpresei zuzendutako SEICetan** banatzen dira (ingeniaritzako, ikerketako, aholkularitzako, sormeneko jarduerak intentsiboetako eta abarretako jarduerak).

SERVICIOS OPERATIVOS Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltze-garapena (521 kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (27 kontr.), higiezin-jarduerak (10 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (1.169 kontr.), administrazio publikoa (29 kontr.), beste zerbitzu batzuk (120 kontr.) eta etxeetako jarduerak (179 kontr.).

KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	5 (%0,2)	%100,0	%0,0
Eraikuntza	53 (%2,4)	%86,8	%13,2
Industria	32 (%1,4)	%78,1	%21,9
ostalaritza	815 (%36,4)	%53,1	%46,9
Merkataritza	318 (%14,2)	%31,8	%68,2
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	165 (%7,4)	%27,9	%72,1
Osasuna eta gizarte zerb.	134 (%6,0)	%29,1	%70,9
SEIC - ENPRESAK			
Zerbitzu operatiboak	474 (%21,2)	%40,3	%59,7

JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	0 (%0,0)	-	-
Eraikuntza	19 (%0,5)	%73,7	%26,3
Industria	55 (%1,5)	%74,5	%25,5
ostalaritza	813 (%21,8)	%40,3	%59,7
Merkataritza	747 (%20,1)	%26,9	%73,1
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	212 (%5,7)	%18,9	%81,1
Osasuna eta gizarte zerb.	754 (%20,2)	%14,7	%85,3
SEIC - ENPRESAK			
Zerbitzu operatiboak	866 (%23,3)	%30,0	%70,0

behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen duela hirian; Donostian sinatzen diren 10 kontratutik 2,6 baino ez dira mugagabeak (aurreko hilabeteetako maila berdina).

Behin-behinekotasuna jarduera-sektore hauetan nabarmentzen da batez ere: Industria eta osasun – gizarte zerbitzuen sektorean (sektore horietan sinatutako kontratuak % 89 eta % 91 aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).


Lanaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritzan, merkataritzan, hezkuntza eta osasun sektorean. Azken horretan, lanaldi partzialeko kontratuak % 85 emakumeei egiten zaizkie (oso sektore feminizatua da).

Emakumeek ez dute ia presentziarik lehen sektoreak eskaintutako kontratazioan (%1 0), industrian (% 21) eta eraikuntzan (% 11). Hala ere, hezkuntzako kontratuak % 73 eta osasun-sektoreko kontratuak % 75 emakumeen kolektiboarentzat dira.

DSBEaren hartzaileak

Dokumentu hau egin den egunean, Eustatek ez ditu argitaratu DSBEa jasotzen dutenen auzoetako banaketa. Hori dela eta auzoen inguruko informazioan ekaingo datuak erabili dira.

Uztailean 3.619 pertsonak jaso zuten DSBEa hirian (ekainean baino 49 hartzaile gutxiago)



Nabarmendu daiteke:

- Maiatzean DSBEa jaso zuten pertsonen % 59,3 emakumeak dira.
- 55 urtetik gorako pertsonak DSBE jasotzen dutenen % 47,4 ziren ekaian.
- DSBEa jasotzen dutenen % 22,9k lanaren osagarri gisa jaso zuten maiatzean.
- Maiatzean Donostian DSBE jasotzen zutenen % 28,5k goi-mailako ikasketak zituen (LH edo unibertsitateak).
- Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera (Ekaina)



	Donostia	EAE	Gipuzkoa
16 -19 urte	%0,3	%0,7	%0,4
20 - 24 urte	%2,5	%2,5	%2,7
25 - 29 urte	%4,5	%5,4	%5,2
30 - 34 urte	%7,2	%7,9	%7,7
35 - 39 urte	%8,4	%9,9	%9,5
40 - 44 urte	%9,4	%11,2	%11,2
45 - 49 urte	%9,9	%11,6	%10,8
50 - 54 urte	%10,6	%11,2	%10,8
55 urtetik gora	%47,4	%39,6	%41,7
barrutitik kanpora	-	-	-
Derrigorrezko ikasketak	%53,4	%61,5	%59,0
Batxilergoa	%9,4	%6,9	%7,2
Lanbide Heziketa	%21,7	%17,8	%20,0
Unibertsitatea	%6,8	%4,4	%4,6
Informaziorik gabe	%8,7	%9,3	%9,2
Lanaren osagarritasuna	%22,9	%21,0	%22,2
Oinarrizko DSBE modalitatea	%77,1	%79,0	%77,8
Gizonak	%0,3	%0,7	%0,4
Emakumeak	%4,5	%5,4	%5,2

(Ekaineko datuak)

Auzoak	Hiritar kopurua	DSBEaren hartzaileak	Auzekide guztiekiko %
Aiete	14.066	148	%1,1
Altza	19.517	598	%3,1
Amara Berri	29.377	438	%1,5
Antiguo	13.754	139	%1,0
Añorga	2.448	29	%1,2
Ategorrieta-Ulia	3.874	74	%1,9
Centro	21.352	375	%1,8
Egia	14.208	330	%2,3
Gros	17.563	272	%1,5
Ibaeta	9.721	128	%1,3
Igeldo	1.040	7	%0,7
Intxaurrondo	15.010	553	%3,7
Loiola	6.073	180	%3,0
Martutene	2.592	84	%3,2
Miracruz-Bidebieta	8.565	285	%3,3
Miramón-Zorroaga	2.302	21	%0,9
Zubieta	-	-	-